



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2021eko agorrilaren 3ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko agorrilaren hiruan, zortzi eta erdietan, Herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeke gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, M. GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, JORAJURIA Ramuntxo
Bilkurako idazkari izendatua izan da : Mme CHAMALBIDE Corinne

Deialdiaren eguna : 2021eko uztailaren 30a

Afitxatze eguna : 2021eko uztailaren 30a

2.ERABAKIA ELIZAKO OBREN MERKATUARI GEHIGARRIEN BOZKA

Nomenklatura : 1.1

Auzapezak oroitarazten du merkatu publiko bat plantan emana izan dela 2020ko urriaren 23an Antioxako San Julian elizaren arraberritzeko, 587 436,03€ ZG gustuarekin. Merkatu hori bi zati nagusitan banatua da, horien barne direla 9 parte :

- 1.parte : (Pareta arraberritze – Harri zizelkatua) 176 714.03 € ZGko zenbatekoarekin,
- 2.parte : (Zureria – Teileria – Egurraren tratatzea) 328 526.00 € ZGko zenbatekoarekin,
- 3.parte : (Arbelak - Zinkeria) 19 101.00 € ZGko zenbatekoarekin,
- 4.parte (Zurgintza) 29 487.54 € ZGko zenbatekoarekin,
- 5.parte (Plastreria) 5 304.48 € ZGko zenbatekoarekin,
- 6.parte (Tindua) 12 712.50 € ZGko zenbatekoarekin,
- 7.parte (Tximistorratza) 4 314.15 € ZGko zenbatekoarekin,
- 8.parte (Bitrailak) 7 700 € ZGko zenbatekoarekin,
- 9.parte (Elektrizitatea) 3 576.33 € ZGko zenbatekoarekin.

Azaltzen ditu merkatu huni loturik izanzen diren ondoko aldaketa hauek :

- 3.zatia (Arbela estaltzea - zinkeria) : Prezio emendatzea, arbela guzien aldatzeakari.
- 4.zatia (Zurgintza) : Prezio apaltzea sartzeko atearen gainekaldean den zureria atxikia izan baita.
- 5.zatia (Plastreria) : Prezio apaltzea 5.zatia ezeztatua izan baita.
- 6.zatia (Tindua) : Prezio apaltzea hegatz azpien tindatzea uste baino merkeagoa atera baita.
- 8.zatia (Bitrailak) : Prezio emendatzea mendealdeko paretan gehitu delako lan bat.
- 9.zatia (Elektrika) : Prezio aldaketarik ez eginbeharretan aldaketa batzuk izan badira ere.

Proiektu horiek aurkeztuak izan ondoren, Herriko Kontseiluan, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberatu ondoren,

- BAIMENTZEN DU Auzapeza gehigarri hauen izenpetzeko : 3 (Arbela estaltzea - zinkeria), 4 (Zurgintza), 5 (Plastreria), 6 (Tindua), 8 (Bitrailak), 9 (Elektrika).

Kide kopurua : 15
 Hor zirenen kopurua : 13
 Balizko boz kopurua : 13
 ALDE : 13
 KONTRA : 0
 ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko agorrilaren 3an
 Auzapeza,
 Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
 2021/09/13an publikatu edo notifikatu ondoan,
 Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/09/13an.

